

## V - BESTELAKOAK

### URAREN EUSKAL AGENTZIA MEDITERRANEOKO ARROEN BULEGOA

**Araiako ur-araztegitik datozen hondakin-uren isurketarako baimena berrikustea. Ur-araztegi horretan Araiako (Araba) Asparrena-San Millan eta Okiturri industrialdeetako hondakin-urak tratatzen dira**

Espediente-zenbakia: RAV-A-2014-0041.

Eskatzailea: Asparrenako Udala.

Asparrenako Udalak Uraren Euskal Agentziari eskatu dio Araiako ur-araztegiaren isurtzerako baimena berrikusteko. Horretarako, dokumentazio egokia aurkeztu du.

Hori guztia jendaurrean jartzen da guztiak jakinaren gainean egon daitezten, hogeita hamar egun naturaleko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita, eskatu den baimenaren ondorioz nolabaiteko kalteren bat hartuko dutela uste dutenek erreklamazioak aurkez ditzaten, Asparrenako Alkatetzan, edo lurralde-bulego honetan (Forondako Atea 9-11-01010 Vitoria-Gasteiz). Espedientea han egongo da ikusgai.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urtarrilaren 23a

*Mediterraneoko Arroen bulegoburua*  
**JAVIER AGIRRE ORCAJO**